AZAROA

3.ALEA





# ALLENDE SALAZAR ESKOLAKO ALDIZKARIA

# URKIOLARA IRTEERA





Azaroan 3. eta 4. mailako ikasleak Urkiolara joan dira irteera egitera.
Lehenengo txandan D eta F taldeak izan dira mendiaz eta naturaz gozatzen





Abenduan, berriz, gainerako sei taldeak joango dira, esperientzia bera bizitzera.
Ikasleek hainbat argazki eder atera dituzte bertan,
eguna eta ingurunearen edertasuna jasoz.





# AURKIBIDEA

02 URKIOLARA IRTEERA

04 HAUR HEZKUNTZA

06 1.ZIKLOA

10 2.ZIKLOA

22 3.ZIKLOA

24 MATEMATIKA LEHIAKETA

25 KIROL EMAITZAK



# HAUR HEZKUNTZA

Urriak 31n,Gau Beltza ospatu genuen. Egunean zehar jarduera desberdinak egin genituen: eskulanak, edabe magikoa, aurpegi margoketa…

Primeran pasatu genuen!



Xanduli manduli, kirrikiki,
eman jatekoak guri!







Hiruhileko honetan 4 urteko gelatan “**Etxea nahi zuen elefantea**” ipuina

**lantzen ari gara.**




Ipuinaren inguruko jardueren artean, antzerki txokoan egindakoa dramatizatzen dugun bitartean, etxean kontatzeko txotxongiloak sortu ditugu.

Ekimen horien bidez, gelan garatutako ikaskuntza-prozesuak jolasaren bidez aberastea eta, aldi berean, beste euskarri bat eskainiz, jakintzak etxera transferitzea dugu helburu.

Hona hemen, entsegu txiki bat .





# 1.ZIKLOA






Azaroaren 1 arekin lotuta lehen zikloko ikasleek
gelan "BETIKO" ipuina landu dute.
Gelan irakurri, komentatu, marraztu eta kontatu dute.
Horra hor, gure marrazkilarien eta ipuin kontalariaren lana.
ENTZUN ARRETAZ!!

# ALTERNATIBA

Gure ikasleak kartoi zaharrak
berrerabiliz,
etxe bat eraiki dute teleskopio
eta guzti!!!
Barrura sartu eta izarretara
bidaiatzen dute.





# EL CORTADOR DE BAMBÚ

Diane Artolak El cortador de bambú pelikulari buruz ikasgelan egin duen ahozko azalpena aurkezten du.

IRUDIA : Sare De Beristain
AHOZKO AZALPENA: Diane Artola

**1-2 G**

# ENTZUN HEMEN IPUINAREN AZALPENA



# 2.ZIKLOA

# IRAKURZALETASUNA

Aurten Allende Salazarreko LHko ikasleak irakurzaletasuna lantzeko saio bat daukagu gure ordutegian .
2.Zikloak saio honetan hainbat lan desberdin egiten ditugu:

1.astean : Testu tipologia lantzeko txostena egiten dugu.

2. astean: Kulturarekin lotutako testuak irakurtzen ditugu (abestiak,olerkiak,mitologia...).

3. astean: Irakasleek, liburu zati bat irakurtzen digute: komentatzen dugu, marrazki bat egiten dugu...
4. astean: Irakurketa librea, etxetik gure gustoko liburu bat ekartzen dugu.

Astero,etxean irakurritako liburuak aurkezten ditugu gelakideen aurrean eta horrela``Super irakurle banatzaile´´etan itsasteko izartxoak irabazten ditugu.

Honez gain, irakurketametroan markatzen dugu eta gure fitxa pertsonalean, izenburua, idazlea eta gure iritzia idazten ditugu.





# OIHAN TROPIKALA

1-Oihan tropikalaren eremuak Ekuatoretik hurbil daude.

2-Oihan handienak Erdialdeko Afrikan, Asiako hego ekialdean,Hego Amerikan eta Madagaskar uhartean daude.

3-Gaur egun,oihan asko galtzen ari dira.

4-Arrainez betetako ibaiek oihana zeharkatzen dute, ur eta elikadur iturri dira animalia askorentzat.

5-Harpia arranoa, tximino orroilaria, tukana, tropiko tximeleta urdina, anakonda, Tapirra , guakamaio gorri bizia eta jaguarra dira oihan tropikalean bizi diren animaliak.



# ADIVINANZAS



Soy un viejo arrugadito
que si me echan al agua
salgo más gordito
Quien soy.

Una señorita va por el mercado con
su cola verde y su traje morado con
su cola verde y su traje morado



# ALLENDE IRRATIA





Entzun hemen irratsaioak

ALLENDE IRRATIA
ESKOLAKO AHOTSAK

## 3-4G TALDEA

AZAROAREN 7A

2025eko azaroaren 7an 3-4 G taldekide batzuk irratsaioa prestatu zuten eta allende irratian bertan entzun genuen.

Benetan ondo egin zutela! ia besteoi noiz tokatzen zaigun!



# PINGUINO

## IDEAS PRINCIPALES





1 Tienen el vientre claro y la espalda oscura para camuflarse y confundirse en el agua.
2. Algunos pueden avanzar bajo el agua a más de 300 metros de profundidad y están hasta 20 minutos.
3. Los pingüinos se orientan muy bien, se comunican a través de su graznido.

4. Los pingüinos son inteligentes.
5. Los pingüinos nadan muy bien.
6. Es un ave que pone como máximo 2 huevos.
7. Los pingüinos comen peces y cefalópodos.
8.El ppingüuinno más grande es el emperador.

# URRIAK 31




Lehenengo eta behin, gelan landu genituen gure artean galdu ditugun edo faltan botatzen ditugun pertsonen oroitzapenak.

Gero seigarren eta bosgarren mailakoak ormairudi handi bate gin zuten sarreran eta han jartzen joan ginen gelan jarritako izenak eta oroitzapenak eta sentimenduak.

Guzti hori taldez talde egin genuen, ostiral arratsaldean, arimen gaua zelako.

Hor jarritako guztia, beti izango dugu guru bihotzean!!

3-4 E



AKROSTIKOA

**MARIA**

Marrubiak jatea gustatzen zaio.
Arbola askotara igoten da.
Robotak gustatzen zaizkio.
Irratia egitzea tokatuko zaio.
Hartza gustatzen zaio.

**GONZALEZ**

Gerarabel gustatzen zaio.
Ondo pintatzen du.
Nazila gustatzen zaio.
Zapatilak eroaten ditu.
Asko korrika egiten du.
Lagara joan da.
Etxeko lanak egiten ditu.
Zaldi bat du.

3 H

## DISEINUTEGI TAILERREKO LANAK

Diseinutegi tailerrean 3. 4.D taldekoek hainbat artistetan inspiratuta  kuadro desberdinak diseinatu ditugu. Vasili Kandinsky, Paul Klee eta Hilma af Klinten artelanak hartu ditugu oinarritzat.



# HALLOWEEN BRACELETS

**Materials:**

A cardstock with a picture of the bracelet.
A pair of scissors.
Crayons.

**Procedure:**

First, colour the template of the spider bracelet.
Next, observe the broken line on the bracelet template. The broken line is a cuttin line.
Then, cut along the broken line.
Finally, insert one edge inside the opposite edge, using the cuttings on both side



## BIOGRAFIAK

# MARIA TERESA

Maria Teresa Erdaide nire birramona da. 1920-ko ekainaren 20an jaio zen, orain hilda dago baina 104 urte izango zituen. Nire birramonaren jaioterria Busturia zen,San Bartolomeko auzoko baserri batetan bizi zen.

3 neba-arreba zituen, aita eta ama. Bere gurasoak zinetako janariak (gozokiak, patatak, palomitak...) saltzen zituzten. Lehenengo gurasoekin bizi izan zen baserri handi batean baina bere gurasoak hil eta gero bere umeekin apartamentu batera bizitzera joan zen (bere epokan berria). Maria Teresaren lanbidea jostuna izatea zen.

8retan gosaltzen zuten, ordu 1etan bazkaltzen zuten eta azkenik 8:30etan afaltzen zuten. Ortuko barazkiak eta etxeko animalien haragia jaten zuten egunero.

Kaleko leku batzuk lurrezkoak ziren eta beste batzuk harrizkoak. Trafiko eta jende gutxi zegoen leku txiki batean bizi zelako.

Nire birramonak eskola publiko batean ikasi zuen. Gure moduan, material berdina erabiltzen zuten. Etxerako-lan gutxi ematen zioten eta ez zegoen ikasketak.

# BIKINGOAK




Bikingoak Europako iparraldeko itsas gizonak ziren, eta oso indartsuak ziren. Bikingoak Europako lurralde askotan sartu eta zarrazkiak egin zituzten.



Kristobal kolonek, Ozeano Atlantikoan zehar bidai ospetsua egin aurreti Lefericson izeneko bikingo batekipar Amerikan lurra hartu zuen.

Antzadenez bikingo izena vik hitzetik dator. Garai hartan Bikingoak itsasontziak egiten zituzten. itsasontzi azkarrak egiten zituzten, egurrezkoak eta laumarekin egiten zituzten itsasontziak.





Bikingo gehienak nekazariak ziren garai hartan eta euren etxeak eta gauzak harriz eginda zeuden.



TelmoUberuaga 5.D

# HISTORIAN ZEHAR

## Historiaurretik gaur egungo garaira egindako ibilbidea.

Gelan lantzen ari garen unitatearen barruan, ikasleek gizakiaren historiaren bilakaera irudikatu dute, historiaurreko lehen urratsetatik gaur egungo aro garaikideraino. Alizek sortutako irudiak modu oso adierazgarrian erakusten du nola aldatu diren gizakiaren bizimodua, tresnak, gizarte antolaketa eta sinesmenak garai bakoitzean.



# LAGUNARTEKO GUTUNA

**GERNIKAN, 2025EKO AZAROAREN 7A BARIKUA**



kaixo Josu! zer moduz zaude? ni oso ondo  nago. Bihar saskibaloi partidua daukat santanape kiroldegian honekin lotuta gonbidapana  luzatu nahi dizut.Hau da nire partidoa ikusteko gonbidatzen diuzut .Hau  da gonbidatuta zaude  nire partidua  ikustera. Goizeko 9:30ean  da partidua.Zure  erantzunaren zain geratzen naiz. Besarkada handi  eta  musu bat.

## DESKRIBAPENA


ALIZE BILBAO 6-G

MY OWN DESCRIPTION

My name is Alize Bilbao and Iam from Arratzu.
I was born in 2014 so Iam 11 years old.
My birthday is on the 7th of January. I live with my family, my dad, mom and sister. My sister is younger than me and her name is Garazi.

Iam short and I have got long blond hair and brown eyes. My eyes and nose are small and my mouth is small. I am a generous and fun person. I am responsible, too.

I like playing with my friends. I have extra curricular lessons after school. My favorite hobby is dancing and reading. My favorite color is green and my favorite food is pasta and ice cream. I love sunny and snowy days. My faborite song is "Hori bai (Sune)" and my favorite movie "el rey leon".

3. Zikloko ikasleak ingeles saioetan norberaren deskribapenak lantzen aritu dira azken asteetan. “My Own Description” izenburupean, ikasle bakoitzak bere burua aurkezteko testu pertsonala sortu du: nolakoak diren azaldu, euren gustuko jarduerak aipatu, eta interesak partekatu dituzte.
Tailer honetan, ikasleek ingelesezko hiztegia eta egitura deskriptiboak landu dituzte, baita euren burua modu argi eta atseginean aurkezteko gaitasuna ere.
Emaitza oso aberatsa izan da, eta bakoitzak bere pasioak, nortasuna eta gustuak islatzen dituen testutxo berezia sortu du.

# MATEMATIKA LEHIAKETA

**1.ZIKLOA**
**Karameluekin jolasean**

Jonanek 12 karamelo ditu. Lagunari 4 eman dizkio.
Zenbat karamelo gelditzen zaizkio?

**ERANTZUNAK**

**2.ZIKLOA**
**OIHANEKO IBILBIDEA**

Unai oihaneko ibilbide batean dabil. Mapak dio ibilbidea 4 zatitan banatuta dagoela:

- Lehen zatia: 750 metro
- Bigarren zatia: lehenengoaren erdiak
- Hirugarren zatia: bigarrenaren bikoitza
- Laugarren zatia: hirugarren zatia baino 250 metro gehiago

Zenbat metro ditu ibilbide osoak?

**3.ZIKLOA**
**Autobus Bidaiaren Arazoa”**

Eskolako autobusak ikasleak hartzen ditu asko eta askotan gelditzuz:
Lehen geltokian, 18 ikasle sartzen dira.
Bigarrenean, 7 igotzen dira eta 5 jaisten dira.
Hirugarrenean, autobusean dauden ikasleen erdiak jaisten da.
Laugarrenean, 12 ikasle igotzen dira.
Zenbat ikasle daude autobusean laugarren geldialdiaren ondoren?

# KIROL EMAITZAK

## Asteburu honetan partidu hauek jokatuko dira!!!

## AZAROAK 7-8
## 5 eta 6.Maila



4 Allende Salazar Urdina
6 LxT Futbola LH5

5 Lekeitio 2025D
8 Allende Salazar Zuria

14 Allende Salazar
4 Landako eskola

55 Allende Salazzar urdina
4 Colegio Jesuitas

46 Allende Salazar zuria
51 Colegio La Salle



66 Allende Salazar Urdina
53 C.P.Landako

44 Allende Salazar zuria
62 Colegio Salesianos Deusto

Allende Salazar
Herri Eskola

NOIZKO HURRENGO ZIRT ZART?

↘

ABENDUAREN 5EAN